

UNIBERTSITATE-TITULU OFIZIALEN NAZIOARTEKOTASUN AITORPENA EBALUATZEKO TXOSTENA

UNIBERTSITATEA	UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
ZENTROA	INFORMATIKA FAKULTATEA
TITULAZIOA	INFORMATIKA INGENIARITZA GRADUA
MEC ID KODEA	2502394
TÍTULAZIOA / IBILBIDEA	IBILBIDEA
RAMA	Ingeniaritza eta Arkitektura
TXOSTENAREN DATA	2019ko urriaren 31a

Unibasqek, "Gradu eta masterreko unibertsitate-titulu ofizialetarako nazioartekotasunaren aitortpena lortzeko protokoloan" ezarritakoaren arabera, goian aipatutako titulu ofizialaren eskaera ebaluatu du nazioartekotasunaren aitortpenerako.

Ebaluazioa zenbait kideko Bektoreetako (metodologia berritzaileak, nazioartekotzea eta erakundeekiko harremanak) Batzordeak egin du. Akademikoek, profesionalek eta ikasleek osatzen dute, eta horiek hautatzeko irizpideak Unibasqen webgunean kontsulta daitezke. Ebaluazio-batzorde horrek aurkeztutako dokumentazioa baloratu du, protokoloan jasotako irizpideen arabera.

Jendaurrean jarri eta batzordeko kide guztiek batera baloratu ondoren, erabaki da ALDEKO TXOSTENA ematea INFORMATIKA INGENIARITZA GRADUA ibilbideari, ezarritako irizpide bakoitzari buruz eginiko balorazioetan oinarrituta. Jarraian, irizpideen betetzearen berri ematen da.

Nazioartekotasun onarpena lortzearen kasuan ebaluaziorako eskaeran ezarritakoa betetzeko, ezarritako neurrien arabera, unibertsitateak tituluaren memoriaren edukiaren aldakuntzak Unibasq-i jakinarazi beharko dizkio. Aldakuntzen jakinarazpena ez egiteak onarpena kentzea ekarriko luke.

1. Tituluaren deskribapena

1.1 Atal honetan, nazioartekotasun titulu edo ibilbideko ikasleentzat dauden plazen kopurua adierazi behar da, eta Unibertsitateak bermatu behar du ikasle guztiak hartzeko behar adina baliabide dituela.

Eskaeran adierazten da unibertsitatea nazioartekotasun-ibilbiderako 20 plaza eskaintzeko moduan dagoela.

Fakultateak zenbait hitzarmen ditu beste unibertsitate batzuekin, 140 plaza baino gehiagotarako.

1.2 Unibertsitateak agerian utziko du titulazioan edo ibilbidean matrikulatutako ikasleen % 10 gutxienez nazioarteko mugikortasun-programen bitartez hartuak izan direla edo atzerritarrak direla. Nazioarteko mugikortasun-programa batetik datorren edo atzerritarra den ikasle bat hainbat titulazioen irakasgaitan matrikulatzen bada, ECTS gehien dituen titulazioan bakarrik egingo da zenbaketa.

Maila bakoitzean dauden nazioarteko ikasleen kopurua jasotzen duen taula bat aurkezten da. Emandako informaziotik ondorioztatzen denez, mugikortasun-programa baten bidez hartutako ikasleen kopuruak gora egin du 2014/2015 ikasturtetik, eta irizpide honetan eskatzen dena, % 10, gainditzen du.

1.3 Titulazio baten nazioartekotasuna aitortzeko, ikasleen % 20k gutxienez nazioarteko mugikortasun-programetan parte hartu behar dute. Bestalde, titulazioak beharrezkoak diren hitzarmenak bermatu behar ditu irakasleri osoa mugikortasun aukera hori izan dezala. Ibilbide baten nazioartekotasuna aitortzeko, bertako ikasle guztiek hartu behar dute parte programa mota horietan.

Adierazten da 4. mailako ikasle guztiek mugikortasuna bermatuta daukatela, 90 ikaslerentzat. Hala ere, emandako informazioaren arabera, azken ikasturteetan 20 ikasle baino gutxiagok hartu dute parte mugikortasun-programetan. Ondorengo urteetan zenbaki horiek adierazi behar dira, gehiagotu diren ikusteko. Titulazio baten nazioartekotasuna aitortzeko, ibilbideko ikasle guztiek hartu behar dute parte nazioarteko mugikortasun-programetan.

2. Titulu ofizial bat lortzeko ikasketa-planaren justifikazioa

2.1 Atal honetan, nazioartekotasunak tituluko kompetentzia batzuk garatzeko duen interesa eta garrantzia justifikatu behar dira.

Informazio nahikoa ematen da eta garbi azaltzen dira nazioartekotasunaren eragina duten tituluaren kompetentziak

2.2 Aipamena lortzeko, helburuak argi eta garbi identifikatzen dituen nazioartekotasun-estrategia bat egotea ezinbestekoa da. Helburu horiek Zentroaren edo titulazioaren plan estrategikoan edo kudeaketa-planean sartu behar dira, eta neurketa-adierazleak eta beren helmuga-balioak bildu behar dituzte.

Unibertsitatearen dokumentu hedagarriak daude, estrategia orokorra eta bere nazioartekotasun plana deskribatzen dutenak, helburuak eta ekintzak bereiztuz. Ibilbidea plan honetan txertatzen da.

2.3 Horretarako, nazioartekotasun-estrategia gauzatu eta koordinatuko duen Batzorde operatibo bat egotea beharrezkoa da, eta batzorde horretan gutxienez ere atzerriko unibertsitate bateko ospe handiko pertsona akademiko bat egongo da. Detektatutako gorabeheren azterketa eta ikasleen jarraipena egin beharko da. Egiaztapenaren jarraipena egiten den eta egiaztapena berritzen den bitartean, batzorde horren bileretako aktak eskatu ahal izango dira.

Batzorde bat dago, nazioartekotasun koordinazio batzorde bat, bertan atzerriko unibertsitate bateko ospe handiko pertsona akademiko batek parte hartzen duelarik.

3. Konpetentziak

3.1 Titulazioaren ezarpenaren antolaketa eta garapenean nazioartekotasun-ekintzen integrazioa beharrezkoa da titulaziorako edo ibilbiderako ezarritako konpetentziak garatzeko.

Nazioartekotasunaren ekintzak ibilbidean ezarritako konpetentzien garapenean txertatzen direla modu argi batean azaltzen da.

4. Ikasleen sarbidea eta onarpena

4.1 Titulura/ibilbidera sartzeko bideak eta betekizunak adierazi behar dira, gomendatutako sarrera-profila barne, zeinak publikoa izan behar duen ikasturte bakoitza hasi baino lehen.

Gomendatutako sartzeko profila eta onarpenerako irizpideen baremazioa zehaztu eta argitaratzen da. Eskarera adierazten da ikasleek profil hau eduki beharko dutela ibilbidera sartzeko: B2 maila atzerriko hizkuntza batean; Informatika Ingeniaritza titulazioko 2. mailako 10 irakasgaietatik, 8 ingelesez egin beharko dituzte, baita gradu-amaierako lana (GAL) ere.

4.2 Titulurako/ibilbiderako aurreikusitako ekintza espezifikoak aipatu behar dira, horien helburua matrikulatuta daudenean ikasleei laguntza eta orientazioa ematea baldin bada.

Fakultatearen webgunean informazioa emateko dagoen atal bereziaz eta 3. mailako ikasleentzako aurrez aurreko informazio-saioaz gain, Unibertsitateak ibilbiderako beste zehaztutako ekintza batzuk aipatzen ditu, helburua ikasleei laguntzea eta orientatzea delarik.

5. Irakaskuntzen plangintza

5.1 Unibertsitateak mugikortasun-programak, hirugarren hizkuntzen eskaintza, eta 2. irizpidean azaldutako parametroen arabera definitutako nazioartekotasun-estrategia gauzatu eta koordinatuko duen Batzorde operatibo bat eduki behar ditu.

Mugikortasun-programa dauka eta ingelesezko irakasgaien askotariko eskaintza du. Halaber, nazioartekotasun

koordinazio batzorde bat dauka, bertan atzerriko unibertsitate bateko ospe handiko pertsona akademiko batek parte hartzen duelarik.

5.2 Curriculum-antolaketak, irakaskuntza-koordinazioak eta ebaluazioak atzerriko unibertsitateekin lankidetzan titulazioak antolatzea ahalbidetu behar dute Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparruaren testuinguruan edo nazioartekotasun-ekintzen integrazioari erantzunak ematen dizkioten beste nazioarteko testuinguru batzuetan. Atal honetan honako alderdi hauek balioetsiko dira:

- programaren gaitasunek nazioarteko inguruneetan garapen profesionala nola errazten duten,
- nazioarteko interes-taldeein zuzendutako programari buruzko informazio publikoa (programak publiko jakin bati zuzendutako atzerriko hizkuntza batean egon behar du),
- Euskadin ofizialak diren hizkuntzez bestelako hizkuntza batean eman beharko da irakaskuntza,
- beste herrialde batzuetako enpresa edo erakundeetan praktikak egiteko posibilitatea,
- programak nazioartekotutako egiturarik ba ote duen (baterako programak, irakasgai partekatutak, kudeaketa-organo komunak eta beste batzuk),
- irakasleen mugikortasun eta trukerako dauden nazioarteko hitzarmenak,
- mugikortasunerako laguntza-sistema, mugikortasuna sustatzeko hitzarmenak egotea, mugikortasunerako aholkularitza, beste unibertsitate batzuetatik datozen ikasleen harrera egitea,

Unibertsitateak nazioarteko hitzarmen ugari ditu. Besteak beste, Hochschule für Wirtschaft und Recht Berlin unibertsitate berlingarrarekin duena azpimarra daiteke.

Irakaskuntza ingelesez ematen da (graduak). Badago aukera praktikak beste herrialde batzuetako enpresetan egiteko.

Irakaslegoaren mugikortasunari eta beste unibertsitate batzuetako ikasleen mugikortasunaren harreraren laguntza sistemari eta aholkularitzari buruzko informazioa dago.

5.3 Tituluak Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzetan eskaini behar du irakaskuntza, guztizko kredituen % 20aren baliokidea den gutxieneko portzentaje batean Graduaren kasuan, edo guztizko kredituen % 30aren baliokidea den gutxieneko portzentaje batean Masterraren kasuan, titulazioak edo ibilbideak aipamena lortu ahal izateko.

Nolanahi ere, ikasleak bere tituluaren gehigarri europarrean “nazioartekoa” aipamena gaineratu ahal izateko, gutxienez ere ECTS-en % 25 hirugarren hizkuntza ez ofizial batean gainditu beharko du Graduaren kasuan, eta ECTS-en % 50 Masterraren kasuan, Gradu/Master Amaierako Lana barnean hartuz, eta gainera gutxienez ere 30 ECTS gainditu beharko ditu nazioarteko mugikortasun-programetan.

Nazioartekotasun-ibilbidean eskatzen da ikasleek gutxienez 48 kreditu ingelesezko irakasgaietan lor ditzatela. 2018/2019 ikasturtean, 72 kreditu eskaini dira ingelesez eta 2019/2020 ikasturtean, aldiz, 78 eskainiko dira. Beraz, ikasleek berraztertuta edukiko dute nazioartekotasun-ibilbideak eskatzen dituen kredituen gutxieneko kopurua ingelesez egiteko aukera.

6. Langile akademikoak

6.1 Unibertsitateak titulazioaren edo ibilbidearen irakasleen Curriculum Vitaeak aurkeztu beharko ditu. Balioetsiko da prestakuntza-programaren irakasleek nazioarteko esperientzia akademikoa izatea eta sareetan parte hartzea, ezarritako nazioartekotasun-helburuen lorpenean benetan lagundu ahal izateko moduan.

Aurkeztutako CVen arabera, ibilbideko irakasleek bete egiten dituzte zigilua lortzeko eskatzen diren betekizunak. CV horiek webgunean argitaratuta daude.

6.2 Atal honetan hurrengo aspektuak balioetsiko dira:

- **Irakaskuntza hizkuntza ez-ofizialetan emateko egiaztatu dauden irakasleak, nazioarteko orientazioaren alde egiteko. Hizkuntza-maila.**

Irakasleek C1 egiaztapena edo baliokidea izan behar dute, irakaskuntza % 20aren baliokidea den gutxieneko portzentaje batean ofiziala ez den hizkuntza batean emateko.

- Atzerriko unibertsitateetan egindako irakasleen prestakuntza (gradua, masterra, doktoregoa).
- Egonaldiak atzerriko unibertsitateetan eta ikerketa-zentroetan.
- Nazioarteko erakunderen batek emandako ikerketa-proiektuetan parte hartzea, eta atzerriko unibertsitate eta ikerketa-zentroetako kideez osatutako taldeetan parte hartzea.
- Programan irakaskuntza ematen duten atzerriko irakasleak.
- Programan irakaskuntza ematen duten atzerriko unibertsitateetako irakasleak.
- Irakasleen jarduna irakaskuntza-lankidetzako eta ikerketako nazioarteko sareetan.
- Mugikortasunerako dauden nazioarteko hitzarmenak erabili dituzten pertsonak/irakasle eta ikertzaileen portzentajea.

Aurrekoaz gain, gutxienez ere irakasleen % 20k ondorengo baldintzaren bat betetzen dute azken hamar urteetan:

Eskaeraren arabera, fakultateko irakasleen % 41,2k C1 maila edo baliokidea daukate atzerriko hizkuntza batean, eta ohikoa da nazioarteko garrantzia duten ikerketa-proiektuetan parte hartzea.

2014 eta 2018 bitartean, zentroko 35 irakasle izan dira Europako ikerketa-proiektuetako ikertzaile nagusiak.

Atzerriko irakaslegoa dago (Tartu eta Madeirako unibertsitateetakoak) programan irakaskuntza ematen dutenak.

Mugikortasun-programarako 20 hitzarmen dauzkate atzerriko 16 unibertsitaterekin.

7. Baliabide materialak eta zerbitzuak

7.1 Nazioarteko ikasleei arreta eskaintzeko (webguneko informazioa ingelesez, atzerriko ikasleari arreta eskaintzeko behar adinako hizkuntza-eskakizuna duten administrazio eta zerbitzuetako langileak, eta abar) behar adinako baliabide materialak eta giza baliabideak eskura daudela egiaztatu beharko da.

Nazioarteko ikasleei arreta eskaintzeko behar adinako baliabide materialak dauzkate. AZPari dagokionez, fakultateko teknikari batek ingeles-profila (B2) dauka eta ikasleekiko lehen harremana da heldu aurretik eta heltzen direnean. Horrez gain, ikasle atzerritarrek nazioarteko koordinatzailea eta ibilbideko koordinatzailea dauzkate zentroko erreferentzia gisa. Halaber, badaude atzerritarrentzako erraztasunak (hizkuntza ingelesa) ematen dituzten gaztelaniazko irakasgaiak.

Titulazioaren web orrian edukia ingelesez argitaratu beharko litzateke. Irakaskuntza gidien edukia ere hizkuntza horretan eskuragarri egon beharko dira.

9. Kalitatea bermatzeko sistema

9.1 Nazioartekotasunari lotutako prozedurak aurkeztuko dira, baita titulazioaren diseinu eta plangintzari eta bere jarraipen eta ezarpenari lotuta daudenak ere. Mugikortasun-programen bitartez harrera egin zaien ikasleen gogobetetasunaren neurketa barnean hartu beharko dute, eta beharrezanen identifikazioa ahalbidetu beharko dute, aurreko emaitzen arabera hobekuntza-ekintzak planteatzeko. Era berean, hizkuntzen jakite-maila ziurtatzen duten mekanismoak bildu beharko dira.

Titulazioak mugikortasunarekin eta nazioartekotasunarekin zerikusia duten ekimenak biltzen dituen prozedura bat dauka.

9.2 Mugikortasunean harrera egin zaien ikasleen gogobetetze-mailak gutxienez ere 10etik 7koa izan behar du. Eskaera berriko kasuetan, gutxienez ere galdeketa-eredu bat aurkeztu beharko da eta titulazioa/ibilbidea ikasten ari diren ikasle bisitariei emateko konpromisoa hartu beharko da.

Mugikortasunean jasotako irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkesta eransten da, baita ikasleen gogobetetasun mailaren datu batzuk ere.

Ondorengo urteetan, inkesteei erantzuna ematen dieten pertsona kopurua gehiagotu beharko litzateke.

Hartu behar diren eta jarraipena egin behar zaien konpromisoak.

Nazioartekotasunaren sigilua mantentzeko, ibilbidearen ikaslegoak nazioarteko mugikortasun programetan parte hartu beharko du.

Atzerriko unibertsitate bateko akademiko baten parte hartzea nazioarteko koordinazio batzordean.

Nazioartekotasun estrategiari ekin eta koordinatzen duten Batzorde operatiboko jardueri, antzemandako gorabeheren erreferentziei eta ikaslegoaren jarraipenari edo proposatutako adierazleei buruzko ebidentziak gehitu.

Nazioartekotasun onarpena duen gradua ematen hasi baino lehenago Titulazioaren web orria ingelesez argitaratu Irakaskuntza giden edukia ere hizkuntza berean eskuragarri egon beharko dira.

3. mailako ikaslegoarentzako fakultateko web orrian informazioarekin atal berezi bat gehitu.

Txosten honetan ezarritakoaren aurkako alegazioak aurkeztu ahalko dira, 20 egun naturaleko epean. Epe hori igarotakoan, unibertsitateak alegazioak aurkezteari uko egin diola ondorioztatuko da eta txosten hau behin betiko txostena bihurtuko da.